

B

BARREN

Joseba Etxeberria, Athletic-eko jokalaria

**“Alaba ikustean futboleko
tristurak ahazten zaizkit”**



Mutua General de Seguros

ASEGURU MOTA GUZTIAK

Istripu aseguruak
Istripuak errentarekin
Gaixotasun aseguruak
Auto aseguruak
Etxe aseguruak

Aurrezte planak
Jubilazio planak
Bizitza aseguruak
PYME aseguruak
Denda aseguruak

Diru inbertsioak
- "Vida fondo" (unit link)
- Burtsa
- Inberseguruak (kapital ziurtatuarekin)
- PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua

ELGOIBARKO DELEGAZIOAK URTERO
BEZEROEN ARTEAN ZOZKETATZEN DUEN TELEBISTA,

JON PUERTAS i EGOKITU ZAIO

Jausoro plaza, 1 behea
Tel: 943 74 26 99
Faxa: 943 74 12 35
E-posta: mgsluisa@euskalnet.net

DELEGATUA: M. Luisa Urain Arakistain

ZORIONAK!



ARAMBURU



BITXIDENDA

ARANBURU BITXIDENDAKO
GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA
Bitxi-dendan
gastatzeko
500 €-ko balea

Zkia.: 3.673

Ordezkoa: 5669 zenb.



2. SARIA
Bitxi-dendan
gastatzeko
500 €-ko balea

Zkia.: 4.123

Ordezkoa: 2.078 zenb.

San Frantzisko, 26 Tel./faxes: 943 74 25 35

Lasai, euskara salbatuta dago...

Bai, hala da, euskara salbatuta dago, euskara beste hizkuntza asko bezala gramatikekin, hiztegiekin... salbatuta dugu, baina hizkuntzari bizia ematen diotenak hiztunok gara eta geu gara arazo (eta baita bidea ere).

Abesti ezagun batek dioten bezala "Euskara, euskara jalgi adi plazara..." sarritan erabiltzen dugu, euskara jalgi adi kanpora, mundura, plazara... esateko baina beti gugandik kanpo dagoen zer-bait balitz bezala. Honelakoetan gutako asko jarri al gara inoiz pentsatzen zeinek ematen dion bizia hizkuntzari? Ez al gara ba hiztunok?

Berez ez da normalizatuko euskararen erabilera, bapatean ez baikara denok euskaraz egiten hasiko, baina nahi izatea da oinarria, eta erabilera hori normalizatu nahi badugu, planifikatu egin behar dugu, gauzak ez baitira berez egiten.

Azken hamarkadetan normalizazio bidean egindako lana garrantzitsua izan da, ikastolak, eskolak, euskaltegiak, herrietako euskara elkarteak, euskararen zerbitzu publikoak, euskarazko komunikabideak... baina oraindik asko dago egiteko lan munduan batez ere, leku askotan tapoi efektua egiten ari baita lan mundua, euskaraz ohituta dauden gazteentzako traba bihurtuz hizkuntza.

Ekonomiak, lanak, izugarritzko garrantzia du gure bizitzan eta baita gure hizkuntzaren bizitzan, eta lortuko al dugu beste abesti ezagun batek dioena? "Lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz..."

Euskalgintza profesionalizatzen doala ere esango nuke eta geure herrian begiratu bat ematea besterik ez dugu: merkataritzako planak baititugu, ostalaritzakoa, enpresak euskalduntzeko euskara planak, gazteen aisialdira bideratutakoak... eta agian bidea hori izan beharko da, gizarteko hainbat esparrutara euskara ekarri eta bere erabilera beste gai batzuen parean aztertu eta lantzea.

Baina, azken batean, esan bezala nahi izatea da garrantzitsua. Puri-purian dauden pailazo ezagun batzuk dioten moduan bihotza (nahi edo behar izatea), burua (hizkuntza jakitea), eskuak (erabiltzea), sentitu, pentsatu eta egin, horixe da egin beharrekoa.

Deñe Zabalo



"Nahi izatea da oinarria, erabilera normalizatu nahi badugu, planifikatu egin behar dugu"



*Astlehenean
Juan Mugerza
kroseko
informazioa,
erretratuak eta
bideoak.*

**Egin klik
eta
ikusiko
duzu!**

www.elgoiBARREN.net



“Elgoibartarra
naizela
esaten dut
leku
guztietan”

JOSEBA ETXEERRIA

ATHLETIC-EKO JOKALARIA

Kirol Federatuaren sariak banatzeko ekitaldira etorri zen Joseba Etxeberria eta berarekin berba egiteko aprobetxatu genuen bisitaldia. Ez da erraza Joseba Elgoibarren ikustea. Bilbo eta Lezama artean bizi da, baina bihotzean darama Elgoibar eta harro esaten du elgoibartarra dela. Futbolaz aparte beste pasio bat daukala aitortu digu; bere alaba. Duela urtebete pasa jaio zen Iraia eta, ordutik, bere bizimodua izugarri aldatu dela kontatu digu Josebak. Futbolak ematen dizkion une txarrak alabarekin errazago gaingitzen direla kontatu digu.

Elkarizketa osoa irakurtzeko: www.elgoiBARREN.net

Ez da erraza zu Elgoibarren ikustea. Zer da Elgoibar zuretzat?

Nire herria da. Athletic-en jokatzen hasi eta urte eta erdira Sopelara joan nintzen bizitzera. Zortzi egin nituen bertan eta orain Bilbon bizi naiz. Ni elgoibartarra naiz, eta joaten naizen toki guztietan esaten dut Elgoibarkoa naizela. Denek galdetzen didate non dagoen eta nolakoa den, eta ni saiatzen naiz esplikatzeko.

Nola doa aurtengo denboraldia?

Nahiko ondo. Azken bi urteak gogorak izan dira, momentu txarrak pasatu ditugu baina aurten fitxaje berriak etorri dira eta uste dut gauzak hobeto joango direla.

Nolako giroa daukazue aldagelan?

Oso ona. Taldea gaztea da, ia denok bertakoak gara eta oso ondo konpontzen gara. Giro onean lan egitea askoz errazagoa da. Eguneroko entrenamenduez gain, ordu asko ematen ditugu elkarrekin bidaietan edo kontzentrazioetan, eta giroa ezinbestekoa da.

Aldagela horretan zein da zure papera?

Nire jarreragatik edo kapitaina naizelako esaten da erreferentzia naizela. Bakoitzak bere lekua dauka taldean eta guztiok gara garrantzitsuak. Ni hasi nintzenean jokalariek beterranoek izugarri lagundu zituzten. Nire egoera berezia izan zen eta eskertu nuen. Nire lana orain hori da, gazteei taldean erosotzen laguntzea.

“Etxe gehienetan bezala, nirean ere emaztea da kapitaina”

Eta etxean, zein da kapitaina?

Etxe gehienetan bezala, nire emaztea. Etxean ez dakit gauza askorik egiten, baina lan txikiak egiten ditut. Orain alabarekin lan handia dago eta ezinbestekoa da laguntzea.

Partida galtzen duzunean, nork jasaten du zure haserrea?

Emazteak, batez ere. Baina alaba izan dudanetik desberdina da. Partida galdu eta

haserre etxeratzen naizenean, alaba ikustean dena ahazten zait. Pertsona berri bat dago orain nire bizitzan eta pertsona txiki horrek sekulako indarra dauka. Berak laguntzen dit futbolako une gogorak gainditzen. Hala ere, futboleko hainbeste urte eman ondoren ikasi egiten da egoera hauek jasaten, hasieran askoz gogorragoa zen.

Nola daramazu futbolari izatearen fama?

Ondo, denborarekin hori ere ikasi egiten da. Hasieran jende guztia begira gelditzen zitzaidan kalean, denak inguruan komentarioak egiten... Badakit hori zer den, ni beste aldean ere egon naizelako. Niri gustatzen zitzaizkidan futbolariak eta nire erreferentzia ziren. Orain alderantziz, ni naiz umeen idoloetako bat. Azken batean horixe da gure lana. Futbolariak gara, telebistan ateratzen gara, baina horrez aparte pertsona normalak gara. Jendeak gertutik ezagutzen gaituenean konturatzen da ez garela ukiezinak.

Batzuk oraindik ez dizute barkatu Realetik Athletic-era joan izana. Nola gogoratzen duzu garai hura?

Hamahiru urte pasatu dira dagoeneko eta ahaztuta daukat. Futbolak horrelako gauzak dauka, ez zaio beste munduko garrantzirik eman behar. Zaletu bakoitzak bere taldea dauka eta ez du nahi izaten jokalariek beste taldeetara joatea. Oso gaztea nintzen eta nire familiakoek komentario asko jasan behar izan zituzten. Nire bidea hori zen eta niretzako onena zena aukeratu nuen. Hori argi daukazunean, komentario horiek guztiak ez daukate hainbesteko indarrik. Nik argi neukan eta ez naiz damutzen. Oso ondo hartu ninduten Bilbon eta oso gustura nago.

Nola bizi izan zenuen Realaren jaitsiera?

Egoera gogorra jasan zuten iaz eta azkenean bi taldeak ibili ginen larri. Aurreko denboraldiak ere ez ziren onak izan Realarentzat eta azkenean eurei tokatu zitzaizkien jaitsiera. Hiru talde jaitsi behar dira eta Realak suerte txarra izan zuen. Badi-rudi aldaketak datozela, baina zaila da igotzea. Talde asko daude helburu berearekin eta bigarren mailako denboraldia oso luzea da. Gauzak lasaitasunez hartuz eta lana ondo eginez igo daitezke, baina urduritasuna nagusitzen bada ez da erraza izango.

Oso gazte hasi zinen futboleko. Gainontzeko gazteek izan duten bizimodua faltan bota duzu?

Denetarako denbora dago. Egia da koadrilakoekin ez naizela nahi beste atera, baina beti dago parrandaren bat egiteko aukera eta gainera, komenigarria da, burua argitu egin behar da noizean behin. Futbolari izanda, jakin egin behar da parrandak noiz egin.

“Egunen batean lortuko dugu Euskal Selekzioaren ofizialtasuna”

Euskal Selekzioarekin jokatzeak esanahi berezia dauka zuretzat?

Bai niretzat, gainontzeko jokalarientzat eta baita zaletuentzat ere. Ofizialtasuna lortzeko bidea zaila da, interes politiko handiak daude tartean eta denok batera egiten dugun ekitaldia da. Zaletuek begi onez hartzen dute jokalarion jarrera. Beti Gabonetako oporretan izaten dira partidak, baina inork ez du arazorik jartzen. Kristoren giroa egoten da San Mamesen. Iazko udan Venezuelan jokatu genuen eta aurrerapauso garrantzitsua izan zen Euskal Selekzioa munduan ezagutzeko. Ni positiboa naiz eta uste dut egunen batean lortuko dugula ofizialtasuna.

Izan duzu inoiz “talde handien” eskaintzarik?

Bai, zerbait egon da eta ilusio handia egiten du, azken batean, zure lana kanpotik baloratzen dela adierazten dizute. Baina ni oso gustura nago Bilbon, bai taldean eta baita hirian ere. Argi daukat nire bidea zein izango den.

Noiz arte Etxebe zuri-gorri?

Ez dakit, zaila da esatea. Gogoia eta ilusioa ez zaizkit falta eta ahal dudana bitartean partidak jokatzen jarraitzea da nire nahia. Beste bi edo hiru urte jarraituko dudala uste dut.

GABONAK

Oroimenean gordetzeko hainbat irudi

Bukatu dira zorioneko Gabonak, eta erreposoa egiteko garaia heldu da. Hamaika opari, istorio, amets edo kontakizun gertatu ziren, eta 11 argazkitan bildu ditugu. Txikienak pozarren ibili ziren Olentzero eta Erregeen atzetik herrian zehar, eta patinatzeko pistan. Nagusienek estimatu zuten Gabon Zaharreko azoka. Aukera paregabea izan zuten herritarrek bertako produktu eta ganaduekin gozatzeko.

Argazkiak eta bideoak ikusteko: www-elgoiBARREN.net



Opariz beteta etorri ziren Erregeak.



Jende asko ibili da patinatzeko pistan.



Trikilariak alaitu zituzten kaleak Gabon Zahar Ferian.



Gazta lehiaketako irabazle eta partaideak.



San Anton egunean geratuko da jaiotza mekanikoa 2008ko Gabonetara arte.



Urmeak Olenzerori eskutitza emateko zain.



San Silvestre krosean ere Gabon giroa ez zen falta izan.



Umeeen eskarak entzun zituzten Erregeek.



Ikastolako txosnan txahala erre zuten Gabon Zahar Ferian.



Olenzero ondo portatu zen gaztetxoekin.



San Silvestre krosean parte hartu zuten partaide batzuk.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Kirol Patronatuko jaun agurgarri hori

Zeuk zuzendutako kiroldegian urteko bonu indibidualaren igoera ikaragarria dela-eta, nire ezinegona azaldu nahi dut, eskaintzen diren zerbitzuengatik larregi ordaintzen dugulako nire ustez, instalazioak lagata daudela kontuan hartuta. Instalazioetan eraldaketarik ez da igartzen. Kiroldegiko muskulugintza gela, esate baterako, orain hamabi urte nik IEE ikasten nuen bezalaxe dago eta, gainera, bizikleta guztiak Mintxetan spinning egiteko erabiltzen direnen hondakinak baino ez dira. Hori dela-eta, bazkideon diru-sarrera guztiak nora doazen jakin nahi nuke, garbiketa eta kirol materialetarako ez behintzat. Lotsagarria iruditzen zait spinning egiteko bazkide izatera behartzea. Duela urte batzuk aerobic egiten nuen eta ez zegoen beharrik. Lauren kontura diru-kutxak bete nahi dituzte, ala?

Horrez gain, komenigarria izango litzateke noizean behin Mintxetako aldageletatik pasatzera ausartuko bazina, oso usain txarra darielako eta erabat lagata daudelako. Spinning gelan zer esanik ez, lurrean dauden ile guztiakin peluka egin daiteke eta Tarzan etxean bezala sentituko litzateke amaraun guztiakin. Zeure berri izango dudalakoan... Gaizki ez hartu, baina oso oso minduta nago, beste asko bezalaxe.

Ainhoa Gonzalez ☺

Energiaren arazoa: Egungo egoera (I)

Azken aldian denon ahotan dabil energiaren arazoa. EAEko kasua aztertzen hasiz gero, Eusko Jauriritzak eta

EEE-EVEk autosufizientzia elektrikora iristeko pausuk ematen ari direla esaten du eta egun kontsumitzen dugunaren %70 ekoizten omen dugu. Beste batzuk aldiz (energia arloan adituak diren baina interesik ez duten taldeek, euren artean Unibertsitateko irakasleek, UNESCOk, Sindikatuek, ekologistek, etab.) dagoeneko %100ean gaudela diote, hots, kontsumo beste ekoiztera iritsi garelako zentral gehiago eraikitzeko beharrik gabe. Azken horiek, gainera, argi uzten dute autosufizientzia elektrikoa eta autosufizientzia energetikoa bi gauza guztiz ezberdinak direla, gure kasuan behinik behin.

Diferentzia lehengaietan dago. La Gaviotako gasa agortu zenetik, EAEn autosufizientzia energetikoa %5ekoa da, hots, energia berriztagarriek sortzen duten elektrizitatea. Gainerakoa kanpotik ekartzen diren erregaiek sortzen dute. Ezin dugu halabeharrez, energiaren hitz egin aldaketa klimatikoaren hitz egin gabe. Gainontzeko %95 horretan sartzen dira nuklearra, ikatza, petrolio edo gasa erabiliz elektrizitatea sortzeko "enpresak". EAEn zorionez, ez daukagu nuklearrik, baina zoritxarrez ezin dugu gauza bera esan besteez.

Guzti horiek, neurri ezberdinetan izan arren, negutegi efektu eragileak diren gasak isurtzen dituzte atmosferara. Argi dago ikatzeko zentral batek Boroakoa bezalako gasezko batek baino gehiago kutsatzen duela, baina bigarren horretan ere negutegi efektuko gasak handitzen goaz, Kyototik inoiz baino urrunago!

AHT ez Elgoibar ☹

Konpromiso kontua da

Etxeko oheak hutsik, eta beste senide bat hil berri dugutela amaitu dugu 2007a. Itxaropenik ez dugu galdu ordea. Ondo dakigu zergatik eta zertarako ari diren kudelkeria osoz gure eta gure senideen sufrimendua bultzatzen. Baina gure senideek bezala, guk ere tinko jarraitzen dugu bestelako etorkizun baten alde borrokan. Itxaropenak gauzatzeko lan egin behar da. Eta horretarako zuen beharra dugu. Mezu hau Euskal Herriarentzat da:

- Gureak bizirik eta betirako etxeratu badiugu, guztiok aurre egin behar dugu estatuen bortxakeriari. Auzo eta herri bakoitzean konpartitu ditzagun hausnarketak eta eginbeharrak. Errepresialiatuei elkartasuna eta babesa eskaintzeko. Eskubide urraketen aurka egiteko. Benetako konponbidearen alde jarduteko.

- Auzoz auzo eta herriz herri egiten dugun indarrarekin ekarriko ditugu bizirik etxera gaixotasun larriak dituzten euskal preso politikoak. Horrela amaituko dugu biziarteko espetxe zigorrekin eta behartuko ditugu bi estatuak gure senideak isolamendu eta bizi baldintza gogorretatik ateratzera. Dagozkien eskubideen jabe izanik, Euskal Herriatzea, guztiak etxeratzea.

Konpromiso kontua da. Guztion indarrarekin, hori guztia egin baitezakegu hil dizkiguten senide eta lagunaren ilusioak egia bilakatzeko. Herri honi, amnistiarekin, bestelako etorkizun bat eskainiz. Heldu konpromisoei eta animo hasi berri dugun urte honetarako.

Amnistiaren Aldeko Mugimendua ☹

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@topagunea.com

Argitaratzailea:





Aitzol
Garmendia

Sare,
Azken zozo-beleek

jardun duten bidetik, guri ere ailegatu zaigun agur bat txiokatzeko ordua. Hogei hilabete atzera irekitako atea ixteko momentua. Kasu hauetan egin ohi den moduan, balorazio batek ezinbestekoa zirudín. Eta nire kabitik begira, positibotzat jotzen dinat abenturatxo hau.

Tematika bariatua izan dinagu menuan. Ametsak eta maitasunaren inguruko hura, numerologia obsesiboa, opor osteko sindromea, hire esperientzia hegoamerikarra etab. Eliza eta aipatu gabeko kanpaiei ere agur bero bat hemendik.

“Eta nire kabitik begira, positibotzat jotzen dinat abenturatxo hau”

Zuri irakurle, mila esker. Barkatu testu korapilatu eta esaldi maratonianoak, gaizki eta trakets esandakoak, gai korapilatuak, girak eta bueltak. Neurri zaila iruditu zait hau momentuko gogoetak papperatzerako orduan. Asko esan nahi toki txikian eta azkenean aditzak ere jateraino lehortu behar testua. Emaizta trinkoegia gehienetan nire zutabean. Eskerrak beste aldekoak haize freskoa ekarri duen.

Esker anitz nire zuzentzaile zorrotzari, aste honetan bai edo oraingoan ez esan didazueneroi, txosna eta taberna zuloetan ordu txikiatoko hitz-asperu luzeetan solaskide izan zaituztedanoi, eta orokorrean zuen barixakuetan tarte bat egin didazuen guztioi. Baita hor gorago izan dudán argazkiaren inguruan kritika konstruktibo pi-la egin didazueneroi ere. Ia azken honetan zeozer meioratu dugun.

Eta azkenik hiri, Sare, pio pio pio...



Sare
Gurrutxaga

Azken kanpaikada jotzeko prest, beraz, tolooon. Kanpandorrekoek gauetan adina zarata atera ez dugun arren, norbaiten belarrietara helduko ote zituan gure hitzak! Belarrietara edo, beno, begietara, zeren bihotzera esatea lartxo esatea izango duk ziurrenik.

Eta pasa dituk, zenbat? 20 hilabete diok? 20 hilabetetán hamai-ka zozokeri eta ez 11, baizik hamaika. Letrekin jolastuz, sortuz eta hitz eginez, zenbakiei beren protagonismoa eman nahian beti ere. Handik edo hemendik, denboraz edo korrika, pozik edo triste. Eta joango gaituk pioka hegan beste kabi berri batzuetara, hemengo hau memoria- ren adarrean gordeta utziz. Goxo egon nauk bertan, hik emandako epeltasunarekin eta irakurri gaituztenen konpaniarekin. Askok ez ditek gurean parada egin, argazki eder horiek emandako inpresioarekin baino ez dituk geratuko. Lastima, edo...eskerrak!? Baina beste askok irakurtzeaz gain zoriondu ere egin gaitiztek edo kritikatu edo ez-adostasuna erakutsi, eta, Aitzol, horrela bai hazten dela bat, entzunez, ikasiz eta hobetzen saiatus.


“Hemendik aurrera nola komunikatu behar ote diagu guk biok? Pioka, nola ez”

Izan dezakedan irakurle fin eta kritiko onena ere aldamenen izan diat momentu oro, gajjartzaile ere askotan eta animatzaile eta...dena, nola ez, Ama. Nahiko eskertza entzun ditiagu pasa berri diren gabonetan eta ez diagu guk ere horrekin jendea asperuko, baina polita izan duk hirekin bide hau egitea, benetan. Baina orain, hemendik aurrera nola komunikatu behar ote diagu guk biok?! Pioka, nola ez.

Agur ba, pio, pio, pio.



Elgoibarko Udala



Beharapenak hasi egin dira.

Badaukazu merkealdietan erosteko ohiturarik?



Ana Maria Otaegi

63 urte, etxeko andrea

Beharra badago bai, baina bestela, ez. Behar dudan horixe erostera joaten naiz. Ez naiz beharapenen zain egoten. Ez daukat kanpora erosketak egitera joateko asmorik.



Victoria Cordero

35 urte, erizaina

Bai, Bilbo eta Donostira joaten naiz, eta herriko den-detan ere begiratzen dut. Merezi du joateak eta egun bat hartzen dut horretarako. Ez dakit zein egunetan joango naizen.



Carlota Castrillo

19 urte, ikaslea

Bai, badaukat beharapenetara joateko ohitura. Denok bezala, ezta? Beti Bilbora joaten naiz, denetarik dagoelako, eta baita ganga gehiago ere. Zer dagoen ikustera joango naiz.



Trinidad Liberal

35 urte, lorezaina

Beharra badut joango naiz erostera. Mutilak eta nik duela sei urte erabaki genuen Erregeak atzeratu eta sasoi honetan erdi prezioan opariak egitea edo behar duguna erostea.

10
TXIKIAN



AMAIA
ARRIETA

Herri Eskolako zaindaria

1. Zer falta zaio herriari? Eta zer dago soberan?

Umeentzako jolastoki gehixeago, baina leku aproposa aukeratu beharko litzateke. Uste dut ez duela ezer ere soberan.

2. Azken aldian egin diren obretatik, zein da gehien gustatu zaizuna?

Madala aldea polita geratu da. Sigmako zubian egin dituzten etxe handi horiek ez zaizkit batere gustatzen.

3. Nolakoak dira elgoibartarrak?

Jatorrak dira. Ni ere jaiotzez hemengoa naiz eta bihotzean daramat herria, dudarik gabe. Elgoibartarra naiz eta harro nago.

4. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Pixka bat gehiago mugituko bagina guztiok, agian hobeto joango litzateke dena.

5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?

Nik uste dut baietz, baina dena hobetu liteke. Gauza bera pasatzen da kultur ekintzekin. Badaude, baina askotan ez dugu nahikoa parte hartzen.

6. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

San Bartolome eguna edo Txiki Eguna. Oso giro polita egoten da.

7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Gaztetan bainatu izan naiz eta, beno, nork daki, hemendik urte batzuetara garai batekoaren pare jarriko balitz, berriro bainatuko nintzateke. Dena den, okerrago ere egondakoa da.

8. Ahal izango bazenu, joango zinateke beste herriren batera bizitzera?

Lanak agindu ezkerro bai, baina bestela, ez. Eskolan lanean badaramatzat bospasei urte. Esperientzia zoragarria da umeen artean ibiltzea...

9. Elgoibar nolako den galdetu dizu kanportar batek.

Herri industrial da, bere gauza politikak badituena. Etor dadila ikustera, askotan hitzen bidez ezin delako adierazi. Nire tamainako herria da.

10. Ipin iezaiozu nota gure herriari, 0tik 10era bitartean...

8 bat, 10ekoa gauza handia delako.

**Asteburu eta jai egunetan ezin gara gaixotu:**

"Lotsagarria da. Herrian lau botika ditugu eta Gabonetan Mendaro eta Soralezeko botikak egon dira guardian. Badakit gertu daudela, baina nagusi askok ez daukagu autorik eta

arazo handiak izaten ditugu botikara joateko. Senideei deitu edo taxi bat hartu behar izan dugu behin baino gehiagotan. Asko eskatzea da herriko botikaren bat asteburuetan guardian egotea? Lau izanik, hilean asteburu bat tokatuko litzaioke bakoitzari".

**Eskerrak Udaleri patinatzeke pista eta auto-txokeak jartzeagatik:**

"Izugarri disfrutatu dugu Gabonetan, patinatzeke pistarekin batez ere. Umeak oso gustura ibili dira, eta hain umeak ez direnak ere bai. Autotxokeekin ere asmatu egin du Udalak. Aparkaleku asko kendu dituzte Gabonetan eta horrek buruko minak handitu dizkigu, baina gure seme-alaben hoberako izan denez, txalo zaparrada handi bat merezi duzue".



San Silvestre lasterketako antolatzaileek herritar guztiak eskertu nahi dituzte: "Bigarren urtez egin dugu San Silvestre lasterketa eta, berri ere, sekula arrakasta izan du. Iaz baino jende gehiagok hartu du parte eta, ikustera ere, herritar asko gerturatu da. Eskerrak eman nahi dizkiegu partehartzaileei, ikusleei eta antolaketa lagundun diguten herriko merkataritza guztiei. Datorren urtean berriz elkar ikustea espero dugu".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

EIZAGUIRRE

OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...

Urte berri on!!!



San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88

Gerra Zibilean hildako gizon baten gorpuzkia aurkitu du *Elgoibar 1936 Gogoratz* taldeak Madariagan

Aranzadiren laguntzarekin berreskuratu zituzten milizianoaren hezurak

Elgoibar 1936 Gogoratz elkarteak memoria historikoa berreskuratzeko ahaleginean, Gerra Zibilean hildako miliziano baten gorpuzkia topatu zuen abenduan Madariagan eta Aranzadi elkartearen laguntzarekin berreskuratu zuten.

Madariagako Juan Aranbarrik Parapan baserriko Felix Etxeberriari emandako informazioari esker topatu zituzten hezurak. Faxistak 1936ko irailean Madariagara heltzean, miliziano bat hil eta gorpua bertan laga zuten. Aranbarriren aitak Madariagan bertan lurperatu zuen.

Ekitaldi xumea

Gorpuzkia jasotzeko unea ekitaldi xume eta hunkigarria izan zen, abendua-
ren 22an. Aurreskua eskaini zioten eta ikurrinak eta bandera errepublikarrak jarri



zituzten. *Elgoibar 1936 Gogoratz* taldeak beste zortzi gorpuzkiren berri ere badiuela iragarri du. Aranzadi Madariagako

hildakoa nor zen ikertzen ari da.

Informazio gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoiBARREN.net



Baltasar Elkartea 50 urte egingo ditu San Anton egunean

Urtarrilaren 17an egingo ditu Baltasar Elkartea 50 urte. Hori ospatzeko, urtarrilaren 16an elkartearen sortzaileen eta bazkide guztien omenez meza izango da San Bartolome parro-
kian, 19:00etan. San Anton Egunean, salda eta txorizoa banatuko dituzte el-
karte aurrean, 12:00etan, eta ondoren bazkideen bazkaria izango da. Hilaren 19an, bazkide sortzaileek eta horien senideek egingo dute bazkaria.

Bazkide fundatzaileen argazkia. Gogora ditzagun izenak: **Goian:** Bonifacio Lopez de Ipiña, Simon Uria, Rufino San Martin, Jose Mari Mugerza, Ramon Uriguen, Anjel Astigarraga, Gerardo Garate, Jose Mari Gil, Ignacio Gabilondo, Sabin Juaristi. **Bi-
garren ilaran:** Anjel Zubiaurre, Valerio Garitagoitia, Javier Arriola, Javier Galdos, Luis Larrañaga, Eduardo Irusta. **Hirugarren ila-
ran:** Imanol Konde, Francisco Igartua, Victor Arrizabalaga, Sabino Mugerza, Jose Luis Arozena, Ildefonso Ansola, J.M. Etxeber-
ria, Sabin Beristain, Ignacio Etxeberria. **Laugarren ilaran:** Francisco Mugerza, Iker Argarate, Silvestre Aranburu, Javier Zengo-
tita, J.M. Igartua, P.M. Esnaola, Patxi Gabilondo, Roke Gabilondo. **Behean:** J.M. Esnaola, Tomas Agirre, Iñaki Gorostiza, Gui-
lermo Regil, Ignacio Mugerza, Vicente Zubiaurre, Carlos Revenga.

Pertsonaia “Juan Mari Mendizabal”



Hamahiru urteko kartzela zigorra ezarri dio Auzitegi Nazionalak Juan Mari Mendizabal elgoibartarrari. Abenduaren 19an jakinarazi zuten epaia eta, bertan, Juan Mari Mendizabal ETA erakundeko buruzagia dela esaten da.

18/98 sumarioan auziperatutako elgoibartarra azaroaren 30ean atxilotu zuten, gainontzeko auziperatuekin batera. Elgoibarren Juan Mari Mendizabalen atxiloketa salatzeako manifestazioa egin zen eta 18/98 plataformak deituta, lanuztea izan zen abenduaren 13an.

Berbia “Beherapenak”

Behera penak eta gora bihotzak! Urtarrileko aldapa apur bat arintzeko, hasi dira beherapenak. Astelehenean zintzilikatu zuten Elgoibarko denda gehienetan “merkealdiak” izeneko txartela eta jendea eskaparateei begira aurkitu dugu egunotan. Batzuk merkealdi zaletu amorratuak dira eta behar handiegirik eduki ez arren, beti egiten dute erosketaren bat. Beste batzuk, ordea, ez daukate beherapenetan erosteko ohiturarik. Elgoibarren ohikoa da San Anton Eguna beherapenetara joateko aprobetxatzea, baina ezin dutenek, asteburura arte itxaron behar dute.

Irudia “Gordoaren autoa”

Auto honen jabeari ez zaio berehalakoan ahaztuko 2007ko Gabonetako Loteriaren zenbakia: 06381. Azaroan erosi zuen autoa elgoibartar honek eta kontzesionarioko komertzialak matrikula zenbakiarekin loteria erosteko esan zion; seguruenik erosle guztiei aholku bera emango die, baina gure mutilak ez zion jaramonik egin, ez dauka-eta loterian jokatzeko ohiturarik. Zozketa egunean ezin zuen sinistu, gordoaren zenbakia bere matrikulan zegoen. Gordoa ez da tokatu, baina gordoaren autoa gure kaleetan dabil.



Parrokiako loteria

San Bartolome Parrokiako loteriaren txartelak dituztenek Euskadiko Kutxan kobra dezakete dirua, urtarrilaren 31 baino lehen. Astelehenetik ostiralera 8:30etik 10:30era edo arratsaldeko 16:15etik 17:30era.

Txankakua Merkatarik Elkartearen zozketa

Txankakua Merkatarik Elkarteak 1.800 euro banatu ditu erosketa txeketan. Lehenengo bi saridunek 500 euroko txekea jasoko dute, gainontzekoek 100 eurokoa. Hauek dira zenbaki irabazleak eta erreserbakoak:

- 77.793 (11.540)
- 66.704 (04.550)
- 33.231 (60.032)
- 07.157 (56.045)
- 32.390 (79.198)
- 55.275 (94.636)
- 72.794 (29.294)
- 87.080 (62.728)
- 05.324 (58.492)
- 55.585 (30.122)

C.D. Elgoibarren zozketa

C.D. Elgoibarrek bi otar handi zozketatu ditu Gabonetan. Bigarren sariaren irabazlea agertu da dagoeneko, baina sari nagusiaren jabea ez da oraindik azaldu. Hauek dira zenbaki irabazleak:

- 1. saria: 00118 (10.476)
- 2. saria: 10.720

Merkatu Plazako zozketa

J.M. San Martin eta Joana Ibarluzea izan dira irabazleak. 60 euroko txeke bana jaso dute, Merkatu Plazan gastatzeko.



Urte berriari zer eskatu diozu?

Lagunekin ondo egotea eta urte ona izatea.

Lotsagabea zara?

Pixka bat.

Zerk lotsarazten zaitu?≠

Lagunekin gaizki gelditzeak.

Zerbait lotsagarria gertatu zaizu?

Behin eskolako jaialdi batean konfunditu egin nintzen eta lotsa pasatu nuen jendaurrean.

Besteei lotsa pasarazten diezu?

Uste dut ezetz.

Nor ezagutuko zenuke?

Dulce Maria, niretzako munduko onena da. RBDren bi kontzertutan egon nintzen, Donostian eta Valladoliden.

Paga jasotzen duzu?

Ez, baina behar dudanean ematen didate gurasoek.

Zertan gastatzen duzu dirua?

Txutxeetan eta erropatan. Beherapenetara ere joango naiz.

Handitan zer izan izan nahi duzu?

Abeslaria.

Elgoibarren biziko zara?

Uste dut baietz, edo inguruetan, Euskal Herrian.

Sakelakoa noiztik duzu?

Duela bi urtetik; nire amarena zen, zahar-zaharra. Mugikorrik gabe ezingo nintzateke bizi.

Zein izan zen 2008an bidali zenuen lehen me-zua?

Ametsen inguruko bat bidali nien hiru lagunei.

Erromantikoa al zara?

Pixka bat.



Sariketa



“E-mprende saria”

Elgoibarko Institutuko Administrazio eta Finantzak zikloko ikasle Lorea Elorzak, Saioa Urreiztik eta Maider Oñederrak EAEko enpresa simulazio txapelketako finalean parte hartu zuten, Tknikan, 4.postua eskuratuz. Parte hartzaileak enpresa birtualen kudeatzaileak bihurtu ziren.



“Behin batean ... Gabonak” idazlehiaketa 2007

Poztekoa da aurten ere Behin batean... Gabonak idaz-lehiaketak izan duen parte hartzea. Etxeko txikienek, orain ere, haien irudimenak ez daukala mugarik erakutsi digute. Irudimenari hegoak jarri eta batzuk marrazki formarekin iritsi zaizkigu. Beste batzuek, berriz, Olentzerori idazteko aprobetxatu dute. Eta izan dira, baita ere, idazle moduan lehen pausoak ematera ausartu direnak ere. Portatu zarete! Zuek nahi baduzue, datorren urtean ere Gabonak marrazteko eta idazteko aprobetxatuko dugu. Baina, aurretik, ikus ditzagun aurtengo marrazki eta idazlan sarituak.

AtxutxiamaiKa




Aurkeztutako lan kopurua

- Gabonetako marrazkia: 53 lan
- Olentzerori eskutitza: 102 lan
- “Nahi dut baina ez naiz ausartzen” idazlana: 14 lan

Epaimahai

- Jon Eugi
- Iñigo Otaño

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



LH 1 eta 2

GABONETAKO MARRAZKIA



Markel Zabala Akizu

“Gabonetako marrazkia” lehiaketako irabazlea
7 urte

- *Olentzero eta Mari Domingin agertzen dira zure marrazkian. Zertan ari dira?*

Elgoibarrera doaz, opariak banatzera.

- *Lehiaketara bidali aurretik zer gertatu zen marrazkiarekin?*

Galdu egin zen, baina gero bilatu egin zuten. Aita joan zen liburutegira, pentsatzen liburu batean sartuta eraman genuela. Han ez zuen topatu eta berak esan zuen: “Amatxo han ibili da gauzak txukuntzen”. Hainbeste txukundu zituen gauzak... beste leku batera eraman zuen. Aurreko egunean izan zen.

- *Ondo portatu da Olentzero? Eskatutakoa ekarri dizu?*

Nik ez nion ezer eskatu Olentzerori. Nik bakarrik sorpresa eskatu nion. Eta sorpresa ekarri dit.

- *Marrazten ona zara?*

Niretzat behintzat bai.

- *Eta marrazten jarraitzeko asmoa daukazu?*

Bai. Kopiatzea gustatzen zait.



SARIDUNAK:

1. saria: **Markel Zabala**
2. saria: **Ander Armendia**

LH 3 eta 4

OLENTZERORI GUTUNA

Kaixo Olentzero maitea:


Aurten ere, urtero bezala irrikaz gaude zu ikusteko, eta beti bezala etxea apaindu dugu pozez nire anaiak eta nik.

Aurten ere urte zaharreko egunean Foruen Plazan jaten ditugu mahatsak kanpandorreko kanpaien erritmoarekin batera eta horren ondoren ohitura dago plater batzuk apurtzeko, frontoiaren aurka, ongi etorria emateko urte berriari.

Horren ondoren jende guztia plaza erdira irteten da korroan dantzatzera eta abestera. Guretzat oso atsegina da, giro polita egoten delako. Txapliguak ere botatzen dituzte. Espero dut horrela ospatzea pila bat urte familia osoarekin eta lagunekin.

Niretzat, bene-benetan, horixe da opari haundiena eta politena. Bukatzeko, lerro hauen bidez eskerrak ematen dizkizut etxe guztietan poza uzten duzulako.

Muxu handi bat



Leire Urzainki Zabala

“Olentzerori gutuna” lehiaketako irabazlea 9 urte

- Olentzerori idatzitako eskutitzean urte berriari hasiera emateko modu berezi baten berri ematen duzu. Zergatik?

Beti egiten dugulako. Gure familiakoak beti joaten gara Plaza Handira eta platerak apurtzen ditugu, seigarren kanpaiarekin. Jende gehiago ere egoten da.

- Eta hori da, zure ustez, gabonetako momenturik onena?

Bai. Afaldu eta gero plazara joan eta dantza egiten dugu. Joaten gara abesten korro batean. Zaharrak eta umeak ere egoten gara, denok.

- Zer moduzkoak izan dira aurtengo gabonak?

Ondo.

- Eta Olentzero ona izan da zurekin?

Bai. DSa ekarri dit.

- Eta zer da hori?

Game Boy bat.

- Orduan pozik egongo zara.

Bai. Eta erregeek xakea ekarri didate, fitxekin.

- Idaztea gustuko duzu?

Bueno...

- Orduan zergatik aurkeztu zinen lehiaketara?

Ez naiz inoiz apuntatu eta aurten bai.

- Sorpresa handia izango zen irabazi duzula jakitea.

Bai. Baina ez nuen espero irabaztea. Gero idazten jarraituko nuke.

SARIDUNAK:

1. saria: **Leire Urzainki**
2. saria: **Ana Zubiaurre**

“Nahi dut baina ez naiz ausartzen” ipuina

Jokinen nahia

Bazen behin Jokin izeneko mutil bat, ume arria eta jatorra zen baina arazo bat zuen: bere gurasoak banandu egin ziren. Bera amarekin bizi zen eta astero joaten zen aita bisitatzerara. Umea ez zegoen egoera honekin oso gustura, nahia go baitzuen denok etxean elkarrekin egotea.

Jokinek 9 urte zituen eta txiki-txikia zen, ile marroia zuen bere begiak bezala, normalean alkandora eta praktako bakeroak eramaten zituen soinean. Lagun asko zituen eta denei egiten zien kasu.

Halako batean, gabonak etorri ziren eta Jokin Olentzerori gizona idazten hasi zen. Berak gauza bat bakarrik nahi zuen baina ez zen eskatzerara ausartzen. Nahi zuen gauza bakarra bere gurasoak elkartu eta etxeko sotoondoaren berotasunean denok goxo-goxo egotea zen.

Egun batean telebista ikusten ari zela ideia bat bururatu zitzaion. Kalera atera zen Jokin eta Olentzeroren iragarkian gertatzen den bezala, zakuarekin ikusi zuen lehenengo gizonaren atzetik hasi zen lasterka.

Denbora bat pasa ondoren txabola batera iritsi zen. Orduan ohartu zen gizon hura Olentzero bera zela eta txunditurik galdetu zion:

- Olentzero al zara?
- Bai, ni naiz -erantzun zion gizonak.- Zer nahi duzu?
- Opari bat eskatu nahi dizut, baina eskatzen dudana Toys "R" Us-en ere ez duzu
- Hori nik ezin dut aldatu, zure egin beharra beraiekin hitz egitea da, baina laguntza behar baduzu lagunduko dizut.
- Baina ez naiz ausartzen -adierazi zion umeak.
- Lasai, beraiekin hitz egiten baduzu, zure gurasoek zure nahia ezagutu eta ulertuko dute. Saia zaitetz-aholkatu zion azkenik Olentzerok.

Eta agurtuz, mutikoa etxerantz abiatu zen. Hurrengo astean Jokinek gurasoekin hitz egin zuen, eta aitak zein amak semea zoriontsu egoteko beste aukera bat elkarri ematea pentsatu zuten, eta orduan aurrera pozik bizi izan ziren denak elkarrekin etxe berean.

Ibon Goikoetxea

Ibon Goikoetxea Gorosabel

“Nahi du, baina ez naiz ausartzen” idazlaneko irabazlea
11 urte



- Banandutako guraso batzuen gaia azaltzen duzu. Zergatik?

Lehiaketan “nahi dut, baina ez naiz ausartzen” gaia jarri ziguten eta pentsatu nuen ume bat ez zela ausartzen eskatzen bere gurasoei elkartzeko.

- Pozik zaude sariarekin?

Bai.

- Era honetako lehiaketa bat irabazten duzun lehenengo aldia da?

Idazlanetan saria, lehenengo aldia. Gero marrazki lehiaketa egin genuen jaietarako eta hor ere eman zidaten sari bat. Eta bertsoetan ere aipamena, Euskadikoa.

- Hemendik aurrera idazten jarraitzeko asmorik baduzu?

Parte hartuko dut hurrengo lehiaketan ere. Idatziko dut. Hurrengo ipuin lehiaketan zer gai jarriko duten ez dakit, baina idatziko dut ematen dutena.

- Jendeak zer esan dizu?

Galdetu didate opariengatik. Eta zorionak eman dizkirate.

- Zure ipuineko Jokinekin portatu da Olentzero. Zurekin ere ondo portatu da?

Bai. Erregalo onak ekarri dizkit, eskatutakoak eta beste gauza batzuk. Erregeek ere gauzak ekarri dizkirate.

- Zer egin duzu gabonetan?

Afariak egin ditugu, familian. Lagunekin ere kalean ibili naiz. Ondo pasa dut.

SARIDUNAK:

1. saria: Ibon Goikoetxea
2. saria: Leire Melgosa Haizea Beristain

URTE BERRIARI ZER ESKATU DIOZU?

Jon Gartzia

6 urte

Guztion artean natura ondo zaintzea. Zuhaitzak babestu egin behar dira. Oso politak dira.



Ibon Alonso

6 urte

Borrokarik ez egitea. Zintzoa naiz, baina borroka batzuk ikusi izan ditut.



Nerea Sasiain

6 urte

Guztiok ondo eta pozik bizitzea. Ni pozik bizi naiz, baina ume batzuk, berriz, triste.



Alaitz Kortaberria

6 urte

Ahizpa txiki bat edukitzea. Nire ahizpa zaharrak 13 urte ditu.



Ane Iriondo

6 urte

Ondo pasatzea. Alaitsua naiz eta asko gustatzen zait lagunekin batera abestea eta dantzatzea.



Alba Ortega

6 urte

Elur asko egitea. Oso polita da eta bertan jolastea atsegin dut. Ez naiz eskiatzera joaten.



Elkartasuna



“Jostailu bilketa”

Atxutxiamaika Aisialdi taldeak azaroaren bukaeran jostailu bilketa egin zuen. Gurutze Gorriarekin elkarlanean beharra duten familietan banatzeko erabili dituzte jostailu gehienak. Aste Santuan Saharara bidaiatuko duen herritar talde batek eramango ditu jostailuz betetako bi kaxa handi.



Gure berbak

Aditza (1): neutrua eta hikakua

Aditza azaltzeko orduan, bereizke-ta nagusi bat eman bihar da lehenda-bizi: aditzaren forma neutruak eta hika-kuak.

1) Neutruak lirake, adibidez, NOR erako honako aditz honek:

- *Ni etorri naiz, haura etorri da, gu etorri gara, harek etorri dira.*

2) Hikakuak esaten dittugunak, be-rriz, beste honek:

- *Ni etorri nok/non, hi etorri haiz, haura etorri dok/don, gu etorri gaittuk/gaittun, harek etorri dittuk/dittun*

Noiz erabiltzen diran hikako aditz honek? Ba, konfiantzako testuingurue-tan, jeneralian: lagunen artian, anai-arreben artian, norberak bere buruari hitz egitten dionian, eta goititik behera-ko jerarkietan ere bai: gurasuak seme-alaberi hitz egitten dionian, nagusixak bere langillari...

Ez da erabiltzen, berriz, gaztiak za-harrereri berba egitterakuan; ez eta se-me-alabak gurasueri ere.

Basarri giruan, osasun ona dauka hikakuak Elgoibarren, bai adiñekuen bai gaztien artian ere (neska gaztien artian ez hainbeste, biharbada). Kalian, berriz, ez du osasun onik, eta 50-60 urtetik go-rakuak bakarrik egiten debe arazorik gabe hika. Hortik beherako hiztunenga-na ez dira, jeneralian, era naturalian transmititu aditz klase honek.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1963

Jose Gurrutxaga korrikalari ezagunak ekarri digu beheko erretratua. Domeka honetan jokatu da Juan Mugerza krosa eta hasierako urteak gogoratzeko ezin hobeto datorkigu argazkia.

Juan Mugerza krosa 1943an egin zen lehenengo aldiz, San Bartolome jaietan eta, orduan, Prudentzio Ayerra izan zen irabazlea. Casto Iraegi, Pako Salaberria eta Don Tomas Zubizarreta urte askotan aritu ziren antolatzaile lanetan.

1963an Nazioarteko maila hartu zuen Elgoibarko krosak eta orduan hasi ziren korrikalari atzeritarrak parte hartzen.

Lehenengo edizioan Mamo Wolde izan zen irabazlea eta hortik aurrera, mun-duko korrikalari mordo batek jantzi du txapela Elgoibarren. Gogora ditzagun zein diren erretratuan ageri direnak:

Ezkerretik eskumara: Fermin Arrese, Mamo Wolde, Niskaner entrenatzailea, Marian Tsegaye eta Jose Gurrutxaga.



ESKERTZA



2007ko abenduaren 26an hil zen *Jeronimo Aramberri Muguruzaren* sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Abenduan...

JAIOAKOAK



Igor Marquez Nogales
Abenduak 13
Jose Julian eta Vanesa



Paula Gil Manrique
Abenduak 21
Laurentino eta Alba Luz



Mikel Diego Buezo
Abenduak 19
Ricardo eta M. Yolanda



Irati Gimeno Garcia
Abenduak 9
Mikel eta Elena.



Klara Galarraga Mendizabal
Abenduak 21
Alex eta Maria

Elene Gabilondo
Abenduak 9
Asier eta Inga

Martin Arregi Perez
Abenduak 17
Mikel eta Igone

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira
943 74 41 12 telefonora edo bidalite-postaz
barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

HILDAKOAK

- J. A. Lopez de Alando 64 urte (Abenduak 5)
- Teodora Campon 74 urte (Abenduak 11)
- Esteban Arrillaga 62 urte (Abenduak 12)
- Josefa Arriola 96 urte (Abenduak 13)
- Jose Maria Alvarez 62 urte (Abenduak 14)
- Miguel Angel Marcos 44 urte (Abenduak 15)
- Jeronimo Aramberri 98 urte (Abenduak 26)

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA



2007ko abenduaren 15ean hil zen, 44 urte zituela
Miguel Angel Marcos Antonen sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZIGOR DIEZ

Juan Mugerza kroseko antolatzailea

Hogeita sei urte ditu igandean jokatu den LXV. Juan Mugerza Nazioarteko Kros Txapelketako koordinatzailea. Ez da antxintxikaria izan, baina kirol ekitaldi hau puntaren puntan laga du. Aurten iaz baino maila hobea izango da. Mosop eta Jepletzing keniarrak dira faborito nagusiak.

“Ikusita ditut keniarrak espagietekin hasi eta txuletarekin bukatzen”

Aurtengo edizioa inoizko onena da?

Aurten maila hobea daukagu. Munduko bigarren, hirugarren, seigarren eta zazpigarrenak ditugu.

Antxintxikiariak ulertzen dituzu?

Bai, guk beraien managerrekin hitz egiten dugu eta ez bagaude ados, jaisten dugu gure eskaintza, eta hortik aurrera, gainontzeko negozioa-zioetan bezala. Gehienetan azkar ixten da tratua eta ez da arazorik sortzen.

Diru asko eskatzen dute?

Gure borroka ez da handia izaten, baina batzuekin bai. Antxintxikaria etorriko da, etorri nahi badu behintzat.

Munduko onena etor dadin zer egin behar da?

Bost milioi pezeta inguru eskatzen ditu gutxi gorabehera. Baina ez dugu galdetu.

“Krosak ez du parekorik”. Gehiegitxo esatea da?

Beste kros batzuk ezagutzen ditut eta horrelakorik ez dago. Gure lana nahi dugulako egiten dugu, gustatzen zaigulako. Udalak ere lagutzen digu, baina lana gurea da.

Lau urterako hitzarmena sinatu duzue. Lasaiago?

Bai, beste krosek ez daukate horrelako hitzarmenik eta nahiko lukete horrelakoren bat izatea. Estatu osoan ez dago aurrekaririk; Europa mailan, ez dakit. Atletismo munduko jendeak ezagutzen du, eta kanpoan nagoenean, nahikoa harrিতa geratzen dira.

Doping probak egiten dira bukatu bezain pronto?

Bai, bi mutili eta neska bati egiten zaizkie. Ez da arazorik egoten.

Probat bukatu eta gero, ederki jaten dute?

Ikusita daukat keniarrak sekulako espagietekin hasi eta txuletarekin bukatzen. Proba hasi baino egun batzuk lehenago egiten dute. Jan, entrenatu eta lo egiten dute keniarrak.

Bekele, munduko onena, nolakoa da?

Oso umilak dira afrikarrak. Ez dute futbolarien izaerarik. Txapeldunak izan daitezke, baina betiere umilak.



Joaquin Sanchezek irabazi du Morkaikoren argazki lehiaketa

Pirinioetan ateratako erretratu batekin nagusitu da



Pirinioen xarma islatu du Joaquin Sanchezek Morkaikoren argazki lehiaketa irabazi duen erretratuan. Kultur Etxeko sotoan egon ziren ikusgai aurkeztutako 101 lanak. Ikusleen saria losu Muruak jaso zuen.

Aurtengo ekintza-egutegia

Hamabi irteera antolatu ditu Morkaikok 2008rako, urterokoak diren ekintzez gain (Finalista Eguna, Elgoibarko mendi itzulua, argazki lehiaketa, Sargateko

erromeria eta Karakateko Igoera). Hiru irteera aste bukaerakoak izango dira eta bat zeharkaldiko eskia praktikatzeko. "Elgoibartik abiatuz" izenburupean egingo diren irteerak izango dira aurtengo berrikuntza nagusia. Garraio publikoa erabiliz egin daitezkeen txangoak dira, eta Elgoibar irteera edo helmuga izango da. "Behin bidea ikasitakoan, norberak nahi duenean egiteko aukera izango du", antolatzaileen berbetan. Irteera batzuk zapatutan izango dira.

EMAITZAK

ARETO FUTBOLA

Kenci **5** – EHU Araba **4** (Euskal liga)

Anoetako Gazte Asanblada **2** – Elgoibar **1** (Jub.)

ESKU PILOTA

San Anton txapelketa

Andreu-Mitxelena **22** – Garralda-Larrinaga **13** (Pr.)

Ongai-Mariñelarena **22** – Alvaro-Loiola **12** (Senior.)

IDARRAGA Sariak

HAUNDIko jokalarri erregularrena 07/08

Jokalarriak	Puntuak
1. Navarrete	39
2. Kerman Gabilondo Arrillaga	33
3. Goenaga	24
4. Munitis	22
5. Loren Manterola	21

AGENDA

ESKU PILOTA

Ostirala, 11

22:00 Rico-Uzkudun – Perez-Otxotorena (Prom.)

Larrañaga-Arrastoa – Atxotegi-Jauregi (Sen.)

CD Elgoibar

Elgoibar C.D.ko zuzendaritza taldeak bere ibilbidea bukatuko du 2008ko ekainaren 30ean eta erabaki du ez jarraitzea. Ondorioz, zuzendaritza parte hartu nahi duten bazkide talde interesatuak gonbidatzen ditu otsailak 7an arratsaldeko 19:30etan egingo den bilerara. Zalantzarik izan ezker, deitu zenbaki honetara: 943741949, 19.30-20.30ak bitartean.

Urtarrilaren 13an GAZTELEKUAN

Hip-Hop

Funky

Break dantza

Reggae

17:00etatik 20:00etara

BENANTZIO OTAEGI

Parrokoa

Benantzio Otaegi (Azpeitia, 1943) 1993an iritsi zen Elgoibarrera, BARREN kaleratzen hasi eta hilabete gutxira. Harrezkeroztik herriko apaizak lan handia egin du kristauen eta herritarren zerbitzura. Atzetik lan talde sendo eta nekaezina du: guraso, lagun eta kristauak. Hori dela-eta, aurrera jarraitzeko gogotsu dago. Elkarrikeria honetan egunerokotasunaren inguruan jardun dugu, Elizak izan behar duen norabidea ahaztu gabe.

“Sermoietan ez dut eguneko gaiez hitz egiten, ez dagoelako gauza horiez lasai aritzeko denborarik”

Gainontzeko lanbideetan 65 urterekin erretirutzen dira...

Apaizak hori oraindik ez du planteatzen, batetik gutxiago gaudelako, eta bestetik gure langintza ere ez delako beste lan astunagoak bezala. Miresmena diet goizean lanetik datozenei eta baita goizean goiz joaten direnei ere.

Goiz jaikitzen zara?

Gustatzen zait goiz jaikitzea, isiltasun gehiago egoten da otoitz egiteko eta pertsona ere hobeto esnatzen da.

Apaiza eguneko 24 ordutan zara?

Pertsona bat ere 24 ordutan da pertsona, nahiz eta ordu batzuk zuzetzako hartzen dituzun.

Apaiz tradizioz badago zure familian?

Gurean ez. Hori bai, Azpeitia inguruan jesuitek indar handia izan zuten. Egon dira maristak, mojak... Gotzon Garatek dioen moduan, oso herri euskalduna da, baina aldi berean kristau elkarte pila bat ditu.

Mezatararen zenbat doazen esatearen aldekoa zara?

Ez naiz eliza zenbateraino betetzen den edo ez esatearen aldekoa. Elgoibarko eliza batzuetan badaude azken 70 urteetan ia hutsik



egin gabe igandero joan diren kristauak. Belaunaldi horiek bukatzen ari dira, baina badaude. Orain beste momentu batean gaude. Eliztarrok kontzientzia handiagoa hartu behar dugu. Ederrak dira Gabonetako apaingarriak eta jaiak, baina gero kristauak hezi egin behar dira.

Sermoietan eguneko gaiak (abortoa, immigrazioa...) jorratu izan dituzu?

Gai horietan ez gara gehiegi sartzen, ez dagoelako gauza horiez lasai aritzeko denborarik. Gainera jarrera kontrajarriak daude. Apaizak ez dauka arazo guztien inguruko erantzunik. Nire helburua da kristau elkarte eta herria elkartzen dituzten gaiak bultzatzea.

Bakearen inguruan, zer duzu esateko?

Kristau elkarteak ibiltzen dira topaketetan eta kontzentrazioetan. Apaizaren egitekoa kristau elkarte batzea da.

Izan zara manifestazio batean sekula?

Izan naiz, baina ardura hauetan gaudenetik, zaila da.

Merkadilloaren prozesua nola gogoratzen duzu?

Pasatutako kontu bat da. Udaletxera joan beharko zenuke galdezera. Niri dagokidanez, zuzen jokatu nuen.

Baltasar elkartearen 50. urteurrena seilu erakusketako protagonista

Bihartik urtarrilaren 20ra arte egongo da ikusgai

Baltasar Pilotazale Elkartearen 50. urteurrena omenduko du Altzola-tarren Dorretxea Elkartek 28. Seilu erakusketan. Baltasar elkarteari eta Arriola IV pilotari elgoibartarrari eskainitako zigilu-marka bana aterako ditu. Seilu erakusketan bihar inauguratuko da eguerdiko 12:30ean eta urtarrilaren 20ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean.

Arriola IV

Javier Arriola Lizarralde, Arriola IV (1934-2003), pilotaria Baltasar elkarteko bazkide-sortzailetariko bat izateaz gainera, eskuz banakako Munduko Txapel-duna izan zen 1962an. Espainiako txapel-dun ere lau bider atera zuen: 1959an, 1960, 1961 eta 1962an, hain zuzen ere. Atano X, Del Val edo Hilario Azkarate, eta azken urteetan Ogeta edo Retegi II moduko pilotari handien aurka jokatu zuen San Lorentzoko pilotari apartak. Ospe eta oihartzun handiena, baina, aurrez aipaturiko Munduko Txapelketan, Iruñean, jantzitako txapelak eman zion. Herrian egin zioten harrera sekulakoa izan zen.



San Anton jaiak

Urtarrilaren 17an San Anton Eguna ospatzeko, urteroko egitarauari eutsiko zaio. 11:00etako mezaren ostean, ume-entzako parkea irekiko da goizez eta arratsalde, Plaza Handian (euria bada, Ikastolan). 12:30etan, gainera, Ertzaintzaren Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Hurrengo egunean, berriz, San Anton pilota txapelketaren finala jokatuko da Ikastolako frontoian, 22:00etatik aurrera. Zapatuan, 12:30etan erraldoi eta buruhandiak irtengo dira.

Jasone Osororen "Jara Bartzelonan" liburuak arrakasta handia izan du

Durangoko azokarako eman zuen argitara Jasone Osorok "Jara Bartzelonan" liburuak, Zubia argitaletxearekin, eta hantxe agortu zen lehen edizioa. Bigarrena abenduan kaleratu zuen.

Hamabost urteko Jara gurasoekin Bartzelonara bizitzera doanean, hango bizimodu berria deskribitzearekin batera, lagun berrien artean eta ordura arte sentitu gabeko egoera berrietan murgilduta ikusten du bere burua.

Nerabeen artean Jara fenomeno arrakastatsua dela ikusirik, Alfabuara argitaletxeak 2009an Jara-ren lehen liburuak gaztelara itzultzeko proiektua dauka.



Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Abenduko irabazlea:
M^a JESUS INTXAUSTI

Urtarrileko saria:
PLANTXAK

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

murrplastik

- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

EGUNEKO MENUA 9€

San Roque 1. Tel.: 620 43 29 58
PINTXAK, TXOKOLATEA TXURROKIN, HIRIENOKAK, ...

LANA

ESKAERA

- Neska etxeak, etxe-sarrerak... garbitzeko eta pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **678 939 382**
- Neska garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko, orduka edo egun osorako. ☎ **638 420 860**
- Neska prest pertsona helduak edo garbiketa lanerako. ☎ **616 230 814**
- Neska pertsona helduak zaintzeko interna moduan edo zerbitzari lanetarako taberna batean, prest. ☎ **699 813 826** ☎ **649 574 172**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 74 22 01** (13:00-17:00 eta 20:30etik aurrera)
- Igeltsero edo margolari lanak egiteko mutila eskaintzen da. ☎ **664 606 102** ☎ **605 207 081**
- Partikularra emateko prest: ingelesa, matematika eta euskera. ☎ **686 197 248**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo pertsona helduak zaintzeko. ☎ **943 530 407**
- Mutila makinista lanetarako prest. Karneta du. ☎ **616 207 343**
- Neska pertsona helduak zaintzeko prest. ☎ **699 576 107**
- Emakumea dendan lan egiteko prest. Bitxi-dendan esperientzia. ☎ **658 764 984**
- Emakume nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628 405 270**
- Ingeles eskolak ematen dira. Ingeles komertziala, maila guztiak. ☎ **628 405 270**
- Zerbitzari bat behar da astebukaeretakoa, Mendaroko taberna kafetegia batean. ☎ **943 030 150**
- Neska eskaintzen da ileapaindegi laguntzailerako. ☎ **650 280 670**

- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, sukaldari, garbitzaile edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ **943 74 03 67**
- Neska bat lan egiteko prest. Pape-rak ditu. ☎ **610 615 116**
- Mutilak eraikuntzan lan egiteko prest. Zulogailuarekin esperientzia. ☎ **678 022 125**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943 742 575**

ESKAINNTZA

- Esperientzia duen zerbitzari edo sukaldari bat behar dugu. ☎ **696 912 902**
- Zerbitzaria behar da barran eta mahaian lana egiteko. ☎ **635 751 642**
- Zerbitzariak behar dira astegun eta astebukaeretakoa. ☎ **626 967 857**
- Zerbitzari bat behar da astebukaeretakoa. Esperientzia. ☎ **943 74 82 48**
- Enpresa batek peoia behar du. Curriculumala bidali 92 postakutxatilara.
- Administrari laguntzaile bat behar da. ☎ **685 755 799**
- Gasolindegian astebukaera eta jai egunetan lan egiteko lagun bat behar da. ☎ **943 740 241**
- Rock musika taldeak baxu-jolea behar du. Sonic Youth eta Pixies taldeen tendentziak. ☎ **628 095 651**
- Zubacor enpresarako tailer-nagusia behar da. Curriculumala Elgoibarko 50 posta-kutxara bidali.

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Partikularra, erdigunean, 72 m²., prezioa jaitzita. ☎ **660 884 060**

- Pisua salgai Pedro Migel Urruzuno kalean. Partikularretik partikularra. ☎ **666 496 659**
- Pisua salgai Santa Ana 38n. Hiru logela, aldagela, komuna, sukalde, egongela. Berritua, altzariekin. ☎ **669 006 421**
- 45 m²ko apartamentua salgai erdialdean. Logela bat, sukalde amerikarra. Oso argitsua, bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpora, trastero handia aparte. ☎ **678 542 436**
- Etxea salgai, hiru logela, egongela, komuna, oso argitsua. ☎ **615 769 650**

ALOKAIRUA

- Etxebizitza berri xamarra alokairuan, erdigunean, bi logela, igogailu eta garajearekin. ☎ **943 20 30 83**
- Bikote batentzat etxebizitza erdigunean alokatzen da. Berriztatua. Oso ederra. ☎ **605 766 911**
- Pisua osatzeko laguna behar da. ☎ **610 458 552**

GARAJEAK

- Garajea salgai kiroldegi aurrean. Prezio onean. ☎ **696 029 312** (18:00etatik 21:00etara)
- Garajea alokairuan Urasandin, Kalamua kalean. ☎ **665 755 010**

MOTORRA

- Opel Astra, 1600 zilindrotakoa, 16 balbula-100cv. Egoera onean. Bederatzi urte. 91.000 kilometro. 5.000 eurotan. ☎ **650 640 245**

- Opel Monterrey, 4x4, hiru ate, atzean engantxea erremolkerako, motorra 3.100 eta diesela. Egoera onean. ☎ **646 711 421**

BESTELAKOAK

- Sukalde salgai, butanoko lau su ditu. Labea, bonbona eta guzti. Al-tuera neurriak: 88x48x83. ☎ **639 390 808**

ABISUAK

- Belarritakoa aurkitu dut San Franzisko kalean. Zilar kolorekoa, perla berdea ere badu. ☎ **943 748 864**
- Artetxe inguruan perikito urdina galdu da. Inork topatzen badu, mesedez dei dezala ☎ **685 779 532** telefonora. Oparituko da.

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04



ESKERTZA

2007ko abenduaren 5ean hil zen *Jose Antonio Lopez de Sagandoren* sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

2008ko urtarrilaren 4an hil zen *Araceli Txurruka Eizagirrerren* sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak **Onintza**, hilaren 7an, zazpi urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Eider**, ondo pasatu zure egunean. Familiakoen partez.



• Zorionak **Danel**, abenduaren 22an, bost urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Irati**, urtarrilaren 5ean bi urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Irune**, abenduaren 29an, bi urte bete zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Maialen**, abenduaren 21ean bederatzirte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Anadella**, bost urte egin zenituelako abenduaren 23an. Amatxoren partez.



• Zorionak **Mireya**, 24 egin dituzulako. Familiaren eta bere mutil Oierren partez.



• Zorionak **Iker Espiga**, urtebete egin zenuelako abenduaren 15ean. Familiaren partez.



• Zorionak **June**, asteazkenean hiru urte egin zenituelako. Naroa eta Paularen partez.



• Zorionak **Aiala**, zure anaia Aner eta familia guztiaren partez.




• Zorionak **Aitor Niebla**, hilaren 4an, sei urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Jon Mendez**, astelehenean, bi urte eginzenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Julene**, abenduaren 28an, hamaika urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **Iker**, zapitxo eta guzti itzali zenituen hiru kandelatxoak. Familiakoen partez.



• Zorionak **printze**, hilaren 14an, zazpi urte egingo dituzulako. Muxu bat Naroaren partez.



• Zorionak **June**, atzo hiru urte egin zenituelako. Ander eta Maialenen partez.




• Zorionak **aita eta ama**, urtarrilaren 7an eta 13an, zuen urtebetetze eguna delako. Eiderren eta Goizerren partez, muxu bana.



• Zorionak **Markel eta Oinatz**, abenduaren 24an, bi urte egin zenituztelako. Familiakoen eta berezki Oxelen partez.



• Zorionak **Gorka eta Anton**, hilaren 16 eta 17an, urteak egingo dituzuelako. Familiakoen eta bereziki Anderren partez.



• Zorionak **Zipi eta Zape** zuen urtebetetzean, plazako laguneren partez.

OKINDEGIA

13 igandea **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 11 Fernandez
- 12 Yudego
- 13 Yudego
- 14 Zabaleta
- 15 Etxeberria (*Errosario*)
- 16 Ibañez
- 17 Zabaleta
- 18 Etxeberria (*Santa Ana*)

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



11 barixakua

21:15 "Desnudas" antzezlan

Manero teatroaren eskutik.
Herriko Antzokian

12 zapatua

12:00 Seilu erakusketa

Baltasar Elkartearen 50. urteurrena izango da XXVIII. zigilu erakusketaren gai nagusia.
Hilaren 20ra arte ikusgai, Kultur Etxean.

15:45 Iruñeko Ekitaldi Nazionalera joateko autobusa

Ezker Abertzaleak deituta, Ekitaldi Nazionala izango da Iruñeko Anaitasuna pilotalekuan. Autobusa King-kong-etik aterako da.

17:00 Futboling txapelketa

Gaztelekuan.

19:30 Juan Mugerza krosekoko partaideei ongi-etorria

Udaletxeko Pleno Aretoan.

13 domeka

10:15 Juan Mugerza krosa

Eguerdialdera arte lasterketa desberdinak izango dira. Mintxetan.

16:30 Bremengo musikariak

Teatro Paraisoren eskutik.
Herriko Antzokian.

17:00 Dantza jaialdia

Hip-hop, funky, break dantza eta reggae jaialdia.
Gaztelekuan.

15 martitzena

19:30 Herri batzarra

Ezker Abertzaleak deituta.
Kultur Etxean.

16 eguaztena

19:00 Baltasar Elkarteko sortzaileen aldeko meza

Sortzaile eta bazkide guztien alde.
San Bartolome parrokian.

17 eguena

San Anton Eguna

11:00 Meza Nagusia

San Bartolome parrokian

11:30 eta 16:30 Umeentzako parkea

Plaza Handian (Euria bada, Ikastolan)

- Goian bego -



Maria Astigarraga Azpiazu

2007ko urtarrilaren 16an hil zen

Benetako euskaldun

jatorren kidea

beti erabili duzu

nekezko bidea

zuk ondo bete duzu

euskaldunen legea



EAKO ALDERDIKIDEAK

12:00 Salda eta txorizoa

Baltasar Elkartearen aurrean banatuko dute amaitu arte.

14:00 Baltasar Elkartean bazkaria

Bazkideen bazkaria.

17:00 Ipuinkontalaria

Beldurrezko ipuinak kontatuko ditu. Gaztelekuan.

18 *barixakua*

22:00 San Anton pilota txapelketako finalak

Ikastolako frontoian

19 *zapatua*

12:30 Erraldoi eta buruhandiak

Kalean zehar.

14:00 Baltasar Elkartean bazkaria

Bazkide sortzaile eta euren senideentzako.

OHARRA

Urtarrilaren 17an San Anton Eguna izango denez, **BARREN**eko lantaldeak jai-zubia egingo du eta ez da **BARREN**ik kaleratuko. Hurrengo alea urtarrilaren 25ean jasoko duzue.

Gure gomendioa

Juan Mugerza krosa

Domekan, urtarrilak 13, 10:15etik aurrera

Juan Mugerza krosaren LXV. edizioa jokatu da domeka honetan Mintxetako ingurunean. Antolatzaileek lan handia egin dute aurten ere, eta munduko antxintxikaririk onenak ikusteko aukera izango da.

Ikuskizuna ziurtatuta dago Mintxetako berdegunean.



«Las 13 rosas»

12, zapatua: 19:00-22:15

13, domeka: 19:00-22:15

14, astelehena: 21:30

«Michael Clayton»

18, barixakua: 22:15

19, zapatua: 19:00-22:15

20, domeka: 19:00-22:15

21, astelehena: 21:30

«Hairspray»

77, eguena: 19:00

«Bee movie»

20, domeka: 16:30

consultig, s.l.

garoa

Komunitateen administraritza

Trenbide kalea, 21 zkia.- behea
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 03 02 75 - Fax.: 943 74 82 42
mjolivares@euskalnet.net

Utzi albo batera komunitatearen kudeaketak dakartzan zeregin guztiak, eta goza ezazu zerbitzu tekniko-juridiko integraz.

Gure eskaintza:

- Batzorde antolaketak.
- Akten idazketa.
- Bilerak eta komunitateko liburura transkripzioa.
- Lehendakariarentzako aholkularitza.
- Kobrantza kudeaketa, izapidetzeak, diru-laguntza tramitazioak,...

Utzi zure komunitatearen kudeaketa profesionalen eskuetan!!

txatxaran



alba lopez

Gaztelekuko logo lehiaketako irabazlea da Alba Lopez elgoibartarra. Lehenengo aldia da mota horretako sariketa batean parte hartzen duena. 18 urte-tik beherakoentzat zen, eta berak astelehenean egingo ditu. Txikitatik marrazten du, eta Batxilergoa bukatu eta gero, Arte Ederrak ikasteko asmoa du.

“Gantxilloa egitea gustatzen zait, ordenagailuan aritzea berriz, ez”

Nork animatu zintuen lehiaketara aurkeztu?

Aitak. Bera ere aurkeztu izan da jaietako kartel lehiaketara baina nik ezin nuen, gutxienez 18 urte behar zirelako. Eta orain berriz alderantziz, gehienez 18.

Txikitatik marraztu izan duzu?

Bai. Eta marrazten jarraitu nahi dut eta Arte Ederrak ikasi. Baina orain gutxira arte ez nekien zer ikasi. Batxilergoan hasi nintzenean, ez nekien zer egin eta konturatu naiz hori dela gehien gustatzen zaidana.

Nola egin duzu lana?

Paperean egin nuen eta gero Corel Draw programaren bitartez ordenagailuan aritu nintzen.

Zein ideia hasi zinen lantzen?

Logotipoa zenez, ideia sinpleekin jokatu nuen, gazteekin zerikusia duten koloreak erabiliz.

Zenbat denboran egin zenuen?

Erraz egin nuen, di-da batean. Baina orde-

nagailua erabiltzea ez zait asko gustatzen. Nahiago ditut eskulanak, margotzea, jostea...

Jostea?

Bai, artisautzako lanak, jostea batez ere, gantxilloa...

Lagunek zer diote zure zaletasunaren inguruan?

Zerbait oparitzen badiet gustatzen zaie. Baina ez da oso ohikoa gazteen artean gantxilloa egitea.

Lehenengo aldia da gisa honetako lehiaketa batean parte hartzen duzuna?

Bai. Oso gustura nago.

Gazte bulegora joan izan zara informazio eske?

Ez, uste dut eskolan pasatu zigutela informazioa eta lehiaketako lana prestatzeko interneten ere begiratu nuen.

Erretiratuen egoitzarako zein ideia izango zenituzke?

Ez dakit, baina zerbait serioagoa.



ESKERTZA



2007ko abenduaren 19an hil zen, 62 urte zituela, *Jose Maria Alvarez Marcano "Barruelo"*ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Gremioen GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta balnuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Lelhoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Soraluze

Lcihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

Asma

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Javi

Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolln, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrot

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldia

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19 20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 22 58



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragucta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Aramar

Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 5 I
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea
MENDARO
☎ 943 03 35 35/660 791 723

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

Elgoibarrek independentzia

EAE  ANV
www.eae-anv.org

ezkertiarak
garelako
independentzia!

euskalduna
naizelako
independentzia!

gazteen
etorkizuna
independentzia!

gure
ametsa
egi bihur dadin
independentzia!




EUSKALNAZIDA
Independentzia